



**LEGEZKOTASUN-TXOSTENA, EUSKO JAURLARITZAREN (KULTURA ETA
HIZKUNTZA POLITIKA SAILAREN BIDEZ), NAFARROAKO FORU
KOMUNITATEKO GOBERNUAREN (HERRITARREKIKO
HARREMANETAKO DEPARTAMENTUAREN BIDEZ), ETA EUSKARAREN
ERAKUNDE PUBLIKOAREN ARTEKO MUGAZ GAINDIKO, "UDALEKUAK"
PROIEKTUA GARATZEKO, LANKIDETZA HITZARMEN ESPEZIFIKOARI
BURUZKOA**

75/2023 LGAKZ-LT

NBNC_CCO_1611/23_02

I. AURREKARIAK

Kultura eta Hizkuntza-Politika Sailak eskaera bidali dio Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzari, 2023ko ekainaren 14 datarekin, erreferentziatzeko Hitzarmen proiektuari buruzko nahitaezko LEGEZKOTASUN TXOSTENA egin dezan, eskaerak hurrengo dokumentazioa eranstean duelarik:

- Hitzarmenaren zirriborroa
- Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuak sinatutako memoria
- Departamentuko txosten juridikoa
- Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak Gobernu Kontseiluari zuzendutako akordio proposamena

Txosten hau Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 5.1.b) artikuluan eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 13.1.a) artikuluan xedatutakoaren arabera egin da; eta baita ere, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
tef. 945 01 86 30 – Fax 945 01 87 03



egitekoak eta jardun arloak finkatzen dituen irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 14.1.a) y b) artikulua, eta 73/2021 otsailaren 23ko, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen Dekretuaren arabera.

Lehenik ete behin, adierazi nahi dugu Saileko txosten juridikoan egindako azterketa sakonarekin guztiz bat gatzela. Dena den garrantzitsuak diren zenbait hausnarketa egingo ditugu nahiz eta aipaturiko txostenean ere azalduta egon.

II. LEGEZKOTASUNA

1. Xedea

Aztertzen ari garen hitzarmenak aurrengo klausulan zehazten du helburua eta honela dio;

“Hitzarmen honen helburua da Nafarroako Gobernuaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren arteko lankidetzara arautzea, “Udalekuak” proiektuaren lizitazio eta gauzatze bateratua egiteko eta sinatzaileek horiek ahalbidetzeko beren gain hartzen dituzten konpromisoen esparrua arautzeko.

Egonaldiak 2024ko udan egingo dira, bi txandatan, eta bakoitzean 60 ikaslek hartuko dute parte. Plazen heren bat Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleentzat gordeko da, heren bat Nafarroako ikasleentzat eta heren bat Iparraldeko ikasleentzat. Lehenengo egonaldia 9 eta 12 urte bitarteko ikasleentzat izanen da eta 7 egun iraunen du. Bigarren egonaldia 13-15 urte bitarteko ikasleentzat izanen da eta 10 egun iraunen du.”

Beraz, hitzarmen honek hiru partaideen arteko lankidetzara arautzea du helburu 2024ko “Udalekuak” proiektuaren lizitazioa egin eta udalekuak aurrera eramateko.

2. Konpetentzia

Euskal Herriko Autonomia Estatuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 6.5 artikuluan oinarrituta, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumena

du beste euskal lurralde eta gizataldeen baitan euskara zaindu eta bultzatzeko, bai eta lurralde horietan kokaturik dauden erakundeekin –Estatu barruko zein kanpoko erakundeak direlarik ere– harremanak bideratzeko hitzarmenak sinatzeko.

Kasu honetan, Euskal Autonomia Erkidegoarekin batera, hitzarmena sinatuko duten partaideak Nafarroako Foru Komunitatea eta Ipar Euskal Herriko Euskararen Erakunde Publikoa direla kontutan harturik, egokia da gogoratzea, Gobernuari buruzko 7/1981 Legearen 18.artikuluaren e) letrak ezartzen duen bezala, derrigorrezkoa dela Eusko Legebiltzarrari komunikazioa egitea. Bai eta, halaber, Gorte Orokorrei ere, Euskadiko Autonomia Estatutuaren 22.1 artikulua eta Espainiako Konstituzioaren 145.2 artikulua araber.

Euskal Autonomia Estatutuaren 22. artikuluko lehenengo puntuan arautzen den honako hau arautzen da; *“Autonomia Erkidegoak hitzarmenak egin ditzake beste autonomia-erkidegoekin beren bakarreko eskumeneko zerbitzu propioak kudeatu eta emateko. Esandako hitzarmen horiek egiteko, **Gorte Nagusiei jakinarazi behar zaie indarrean sartu aurretik.**”*

Bestalde, Ipar Euskal Herriko Euskararen Erakundea dugu. Saileko txosten juridikoarekin bat gatoz Auzitegi Konstituzionalaren Jurisprudenzia aplikagarri dela esatean (STC 165/1994).

Laburbilduz, hitzarmen honen helburua euskara sustatzea izanik, eta Euskal Autonomia Erkidegoak horretarako dituen eskumenak kontutan izanik, argi dago eskumena duela hitzarmen hau aurrera eramateko.

3. Izaera juridikoa

Partaide sinatzaileen arteko lankidetzaren edukia lankidetzaren hitzarmen izenarekin aurkezten da. Gure ordenamendu juridikoan, hitzarmenak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoa legeztatzen duen urriaren 1eko 40/2015 legean arautu dira, hain zuzen ere, atariko tituluaren 47.etik 53.era bitarteko artikuluetan.

Hitzarmenak konpromiso juridikoak ezartzen ditu alderdientzako eta interes publikoko helburu amankomuna bilatzen du, beraz, juridikoki hitzarmena izan behar duela argi dago.

Argi dago, baita ere, ez zaiola aplikagarri Lankidetzaren Sektorerako Publikoko Kontratuei buruzko legea aurretik aipatu ditugun ezaugarriak direla eta.

4.- Tramitazioa

Tramitazioari dagokionez ere bat gatoz saileko txosten juridikoan azalduko guztiarekin. Ez dugu hemen dena errepikatuko, baina garrantzitsuak diren hainbat kontu aipatuko ditugu.

Aztergai dugun hitzarmenak bereizgarri duen ezaugarrietako bat partaideen izaera juridikoa da. Denak erakunde publikoak dira, baina hirutik bat Frantziako Estatuko erakunde bat da, eta beste biak, bata Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa, eta beste Nafarroakoa.

Hitzarmena aurrera emateko eskumen osoa dute hirurek, hirurek baitute euskara sustatzeko eskumena, beti ere, indarrean sartu aurretik Gorte Nagusiei jakinarazita.

Gogorarazi behar da puntu honetan Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginaren 22.1.a) artikuluan ezarritakoaren arabera, alde aurreko fiskalizazio-txostena eskatu beharko zaiola Kontrol Ekonomikoko Bulegoari.

Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren 144/2017 Dekretuan ezarritako tramiteak bete beharko dira Eusko Legebiltzarrarekiko harremanean. Hau da, aipaturiko dekretu horren 59. eta 60. artikuluetan ezarritakoa: *Legebiltzarrarekiko harremanen arloko eskumena duen organoak jakinaraziko dio Eusko Legebiltzarrari badaukala Eusko Jaurlaritzaren aurretiko baimena Nafarroako Foru Komunitatearekin hitzarmenak sinatzeko.*

Ildo beretik Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduak 224. artikuluan ezartzen du *Jaurlaritzak Eusko Legebiltzarrari baimena eskatuko dio Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Erkidegoaren edo beste autonomia-erkidego batzuen artean lankidetzeta-hitzarmena egiteko. Adostu den hitzarmen-proiektuaren testua bidaliz.*

Estatuko Administrazio orokorrari ere jakinarazi beharko zaio hitzarmena sinatzeko asmoa sinatzaileetako bat atzerriko lurralde-erakundea delako. Aurretiazko komunikazioa honez gain, hitzarmena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da 1317/1997 Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera.

Hitzarmen honen berri eman beharko da Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 5. artikuluan ezarritakoaren printzipio orokorren eta gainontzeko betebeharren arabera.

5.- Edukia

Gutziz bat gatoz edukiaren inguruan saileko txostenean azaldutakoarekin eta ez dugu hemen errepikatuko txostena arintze aldera. Argi dago edukiak betetzen duela 40/2015 legeak 49.artikuluan hitzarmenentzako gutxieneko edukia.

III. ONDORIOA

Aldeko legezkoatasun txostena ematen dugu.

Hau da ematen dudana txostena, zuzenbidean hobeto oinarritutako beste edozein iritziren mende jartzen dudalarik.